


BALIO PROPOSAMENA

Badakizu konpontzera eramaten diren mugikor guztietatik ehuneko zenbat diren komunean eroritakoak? Eta zenbat sukaldean eroritakoak?

Zuek jakin dezazuen, konpontzera eramaten diren mugikor guztien %20a komunera erori direlako eramaten dira, eta sukaldean erortzen direnen kopurua, aldiz, %15 da. Zifra benetan deigarriak, ez da hala?

Hau ikusi ondoren, ez duzu uste mugikorra heltzeko edo uzteko apal txiki bat edukiz gero, etxean erortzen diren mugikorren ehunekoa jaitsiko litzatekela? eta guretzat gauzak askoz errazagoak izango litzatekela?

Gu arazo hau konpontzeko iritsi gara. Mugikorra non eutsi ez daukazunean, Étagère-ren bitartez zure gailu elektronikoak babesteko aukera izango duzu, aldi berean, eroso eta praktikoa izanik.



Bestalde, Étagère-ren diseinuak ez du zerikusirik orain arte ikusitakoarekin. Euskarri sistema berritzaile baten bidez heltzen da, pegatina duen iman baten bidez, eta honek apaltxoak lekuz mugitzea ahalbidetzen du, gainera, ez da inongo trabarik izango, ez duelako espaziorik okupatzen.

Azkenik, Étagère-k, bat egiten du egungo ekonomia zirkularraren korrantearekin, alde batetik, erabilitako materialak birziklagarriak direlako, eta bestetik, gizartearentzat eta ingurunearentzat arazo larria diren gailu elektronikoak hondakinak murriztea ere dugu helburu, hauen bizia luzatzea lortu nahi dugulako.

Laburbilduz, Étagère izeneko apalak, zure gailu elektronikoak eusteko aukera ematen du, hauetan errezetaren bat, telesail bat ikusi edo musika entzun nahi duzunean, bertan utzi eta gailuak oztopo bat ez izateko.

